



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abuztuaren 11

68. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (11. or.).

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Vianako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Vianako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).
- V. Ondorio nagusia (4. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (4. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (4. or.).

VI.2. Langileria (5. or.).

VI.3. Administrazio-kontratazioa (5. or.).

VI.4. Inbentarioa-Ibilgetua (5. or.).

VI.5. Dirusarrerak (5. or.).

VI.6. Hirigintza (5. or.).

**VII. "Nuestra Señora de Gracia" Fundazioa (6. or.).**

Eranskinak

- 1. eranskina.- Dirusarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (7. or.).
- 2. eranskina.- Aurrekontuko emaitzaren kalkulua (7. or.).
- 3. eranskina.- Diruzaintza-gerakinaren egoerorria 2006ko abenduaren 31n (8. or.).
- 4. eranskina.- 2006ko ratioak (8. or.).
- 5. eranskina. Balantzea 2006ko abenduaren 31n (9. or.).
- 6. eranskina. Organigrama (10. or.).

**I. SARRERA**

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Vianako Udalaren 2006ko Kontu Orokorren fiskalizazioa egin du.

Vianako Udalak 3.661 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2005-12-31n
Udala	10.116.291	8.491.883	29

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

Jurramendiko Mankomunitatean, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan.

Estellerriko Turismo Partzuergoan.

“Nuestra Señora de Gracia” fundazioan. Fundazio horrek urteko kontuak bereizita aurkezten ditu. Txostenaren VII. atalean daude jasota.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak.
- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legeak.
- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudiak.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak.
- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa; eta, laugarrenean, Kontu Orokorriari, legezko tasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu. Seigarren atalean erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloan arabera, eta zazpigarren eta azkenekoan, berriz, “Nuestra Señora de Gracia” fundazioaren emaitza jasotzen da.

Halaber, txostenarekin batera sei eranskin doaz, non jasotzen diren dirusarrerak eta gastuak, kapituluaren arabera, aurrekontuen emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren kalkulua, zenbait ratio, eta auditaturiko ekitaldian udalak zuen balantzea eta organigrama.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Vianako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Vianako Udalaren 2006ko Kontu Orokorrek fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikatzekoa den legedia betetzen dela entitateak aurrera eramandako jardueran, 2006ko ekitaldian.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Vianako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta diruzaintza-gerakina.
- Egoerari buruzko balantzea.
- Galera eta irabazien kontua.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrerei eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, horretarako

aztertuz antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean, laginen teknika, edo kontusail nahiz eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa, erabili da.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Vianako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardua, baita bere edukiarena ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen eranskinetan.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

##### IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Udalaren ondasunen inbentarioa gaurkotzeke dago 2000. urteaz geroztik.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke entitatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezotasun printzipioari jarraituz gauzatu dela.

##### IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Behin betiko aurrekontua 22.267.338 eurokoa da, hasierakoaren ia bikoitza, 9.505.337,26 eurokoa baitzen. Gastuen betetze-maila ehuneko 45ekoa da, eta dirusarrerena, ehuneko 38koa (ehuneko 62, kontuan hartu gabe diruzaintzako gerakina gehitzearen eragina).

Aldaketak inbertsio berrien kapituluan gertatu dira.

Eginiko gastuek 10.116.291 euro egin dute eta dirusarrerak, berriz, 8.491.883 euro.

Gastuen betetze-maila apala, funtsean, inbertsioen kapituluak eragin du, eta dirusarrerena, berriz, kapital transferentzienak; izan ere, horien betetze-maila ehuneko 37koa eta ehuneko 17koa izan da, hurrenez hurren.

Dirusarreraren kapituluan, elementurik adierazgarriena da inbertsio errealeen besterentzea, ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 38 egiten baitute, eta gastuen ehuneko 70 inbertsioen eraginez egin da.

Ohiko dirusarrerak (1. kapitulutik 5.era) 4.009.899 euro egin zuten, eta horiekin aurre egin ahal zaie ohiko gastuei (1., 2. eta 4. kapituluak) eta zama finantzarioari (3. eta 9. kapituluak), 2.897.644 euro eta 151.941 euro egin baitzuten, hurrenez hurren.

2006ko abenduaren 31n Vianako Udalak finantza egoera ona erakusten du. Zorpetze maila ez da ehuneko 4ra iristen, bere zorpetze muga ehuneko 28 bada ere, eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.689.411 eurokoa da.

Epe luzerako zorra 1.540.373 eurokoa da. Ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk eskatu.

#### V. ONDORIO NAGUSIA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genetzake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak.

Hala ere, prozedurak hobetearren, behar diren gomendioak biltzen dira hurrengo epigrafean.

#### VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

##### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Kasuko ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa.*

- *Azterlan bat egitea tasak edo prezio publikoak eskuratzea ahalbidetzen duten jardueren kostuei buruz, halako moduz non prezio publiko horiek zehaztuko baitira jarduera bakoitzaren kostuaren arabera.*

## VI.2. LANGILERIA

2006an, langileriaren gastuak 1.077.837 euro egiten du, hau da, aurrekontuan aitorturiko bete-behar guztien ehuneko 11.

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jar-tzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identi-fikatu eta esleitzea.*

Organigrama 6. eranskinean agertzen da.

Kontratua	Prozedura	Esleipena
Musika ikuskizunak	Lehiaketa publikoa	89.600
Musika Eskola	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	2004an esleitua 2006ko gastua: 28.680
Hautzaindegia	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	2001ean esleitua 2006ko gastua: 93.538

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratuak lege-ak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu direla.

## VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

### VI.3.1 Gastuak, ondasun arruntetan eta zer-bitzuetan

2006ko ekitaldiko hiru kontratazio-espeditente aztertu ditugu. Horietatik bi (musika eskola eta haurtzaindegia) kontratu luzatuak dira, baina hasi-erako esleipena aztertu dugu.

### VI.3.2 Inbertsioak

Kontratazio espeditente hauek aztertu ditugu:

Kontratua	Prozedura	Esleipena
Harresiak sendotzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	165.705
Hilerria handitzea	Lehiaketa publikoa	745.676

2006ko ekitaldian harresiak sendotzeko lanak esleitu dira, eta lan horiek amaituta daude. Hilerri-aren handitzea 2005eko azaroan esleitu zen, baina 2006ko urtarrilera arte alderdiek ez dute kontratua sinatu. 2006ko amaieran lanak ez zeu-den amaituta.

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

## VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Ondasunen udal inbentarioa eguneratzea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatze prozedurak defini-tuz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizki-en irizpideen arabera, eta lurzoruaren udal-onda-rea izan dadila gainerako udal ondasunetatik bereizitako ondarea.*

## VI.5. DIRUSARRERAK

Dirusarrera handienak hauek izan dira: inber-tsioen besterentzeak (dirusarrera guztien ehuneko 38), transferentzia arruntak eta kapital transferen-tziak (ehuneko 29), eta zuzeneko eta zeharkako zergengatiko dirusarrerak (ehuneko 25).

Lursailen salmenta 3.660.395 euroan enkante publiko bidez egin zen, eta haren kudeaketa eta jarraipenerako beharrezkoak diren idatzoharrak egin ziren lurzoruaren udal ondarean, baita atxiki-tako baliabideen egoera-orrian ere.

## VI.6. HIRIGINTZA

Vianako udal plana 2003ko azaroaren 11n one-tsi zen behin betiko.

Udal plana izapidetzen ari zen bitartean inda-rrean sartu zen Lurralde antolamenduari eta hiri-gintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea. Hori dela eta, gomendatzen dugu:

- *Hirigintza planeamendua aztertzea eta, kasua bada, aipatu 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

• *Hirigintzako hitzarmenen erregistroa egitea. Gaur egun, horren artxiboa urteka antolatua dago.*

#### VII. “NUESTRA SEÑORA DE GRACIA” FUNDAZIOA

“Nuestra Señora de Gracia” zaharren egoitzako Gobernu Batzordeak, 2007ko otsailaren 23ko bil-

kuran, onetsi zituen 2006ko ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua, egoeraren balantzea eta oroitidazki ekonomikoa.

Honakoak dira fundazio horrek 2006an aurkeztutako datu ekonomikoa, auditatu ez badira ere:

Erakundea	Gastuak	Dirusarrerak	Ekitaldiaren emaitza
Fundazioa	733.994	730.179	-3.815

2006. urtean, zaharren egoitzaren batez besteko okupazioa 70 egoiliarrekoa izan da.

Txosten hau auditore Rosa Zudaire Echávarri andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

**1. ERANSKINA.- DIRUSARRERAK ETA GASTUAK KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA**

## Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Likidatua, gutzira	Likidatua (%)	Kobratzeko dagoena
1 Zuzeneko zergak	1.002.170	-	1.002.170	1.193.523	119%	1.144.058	96%	49.465
2 Zeharkako zergak	940.840	-	940.840	973.623	104%	898.499	92%	75.124
3 Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	393.040	-	393.040	390.426	99%	351.879	90%	71.184
4 Transferentzia aruntak	1.037.980	2.211	1.040.191	1.210.088	116%	1.138.904	94%	20.510
5 Ondare dirusarrerak eta apro. kom.	192.060	0	192.060	242.239	126%	221.729	92%	-
6 Inbertsio errealen besterentzea.	1800.000	1.078.155	2.878.175	3.229.814	112%	3.229.814	100%	1.050.849
Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa	5.791.110	1.460.863	7.251.973	1.252.170	17%	201.321	16%	-
8 Aktibo finantzarioak		8.568.889	8.568.889					-
9 Pasibo finantzarioak		-	-					-
Dirusarrerak, guztira	11.157.220	11.110.118	22.267.338	8.491.883	38%	7.186.204	85%	1.305.679

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak.	Likidatua (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	1.157.270	-8335	1.148.935	1.077.837	94%	1.077.223	100%	614
2 Ondasun arunt eta zerbitzuen gastuak	1.631.680	41.960	1.673.640	1.577.129	94%	1.462.766	93%	114.363
3 Finantza-gastuak	46.990	-	46.990	3.445	7%	2.445	71%	1.000
4 Transferentzia aruntak	249.860	20.800	270.660	242.678	90%	236.758	98%	5.920
6 Inbertsio errealak	7.014.430	11.892.053	18.906.483	6.994.597	37%	4.806.696	69%	2.187.902
7 Kapital-transferentziak	908.470	-836.360	72.110	72.110	100%	72.110	100%	-
9 Pasibo finantzarioak	148.520		148.520	148.496	99%	148.495	100%	-
Gastuak, guztira	11.157.220	11.110.118	22.267.338	10.116.291	45%	7.806.493	77%	2.309.798

**2. ERANSKINA.- AURREKONTUKO EMAITZAREN KALKULUA**

Aitorturiko eskubideak (2006)	8.491.883,14
(Aitorturiko betebeharrak, 2006)	10.116.291,23
<b>Aurrekontu emaitza</b>	<b>(1.624.408,09)</b>
(Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak)	(677.953,75)
Urteko finantzaketa-desbideraketa negatiboak	1.355.191,11
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	3.334.463,77
<b>AURREKONTUKO EMAITZA BEHIN BETIKOA</b>	<b>2.387.293,04</b>

**3. ERANSKINA.- DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2006ko ABENDUAREN 31n**

Kontzeptua	Saldoa
Indareko ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	1.305.705
Itxitako ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	443.777
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	9.294.742
Ordaintzen itzulketak	-
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-282.942
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	-13.708
<b>Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>10.747.575</b>
Indareko ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	2.308.798
Itxitako ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	12.573
Dirusareren itzulketak	309
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-
Aurrekontuz kanpoko gastuak	524.760
<b>Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>2.846.441</b>
<b>Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>1.593.603</b>
<b>Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak</b>	<b>172.315</b>
<b>DIRUZAINZA-GERAKINA, OROTARA</b>	<b>9.667.051</b>
<b>Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina</b>	<b>714.786</b>
<b>Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina</b>	<b>7.262.854</b>
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GERAKINA</b>	<b>1.689.411</b>

**4. ERANSKINA.- 2006ko RATIOAK**

Adierazlea	2006
Dirusareren betetze-maila	%38,1
Gastuen betetze-maila	%45,43
Kobrantzen betetzea	%84,62
Ordaintzen betetzea	%77,17
Zorpetze-maila	%3,79
Zorpetze-muga	%27,74
Zorpetze-ahalmena	%23,95
Aurrezpen garbia	%23,95
Langileria-indizea	%10,65
Inbertsio-indizea	%69,85
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	%29,00
Dirusamerak biztanleko	2.320
Gastuak biztanleko	2.763
Dirusamera amuntak biztanleko	792
Gastu amuntak biztanleko	699
Finantza-zama biztanleko	42



**5. ERANSKINA. BALANTZEA 2006ko ABENDUAREN 31n****AKTIBOA**

Izena	2006	2005	Aldea
1 - Ibilgetu materiala	16.719.460	14.438.346	2.281.114
2 - Ibilgetu ez-materiala	205.274	199.048	6.226
3 - Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.480.400	1.679.275	1.801.125
4 - Herri ondasunak	1.708.079	1.665.783	42.296
5 - Ibilgetu finantzarioa	481	481	-
<b>A IBILGETUA</b>	<b>22.113.693</b>	<b>17.983.932</b>	<b>4.130.761</b>
7 - Izakinak	-	-	-
8 - Zordunak	1.760.629	3.833.882	-2.073.253
9 - Kontu finantzarioak	10.877.198	9.570.006	1.307.191
10 - Egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	-	-	-
11 - Aplikatzeko dagoen emaitza	-	-	-
<b>C IBILKORRA</b>	<b>12.637.827</b>	<b>13.403.888</b>	<b>-766.062</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>34.751.520</b>	<b>31.386.821</b>	<b>3.364.699</b>


**PASIBOA**

Izena	2006	2005	Aldea
1 - Ondarea eta erreserbak	24.478.218	11.980.573	12.497.645
2 - Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	1.467.947	12.497.645	-11.029.697
3 - Kapital dirulaguntzak	4.404.833	3.335.508	1.069.325
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>30.350.998</b>	<b>27.813.726</b>	<b>2.537.272</b>
4 - Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.540.373	1.688.869	-148.495
<b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.540.373</b>	<b>1.688.869</b>	<b>-148.495</b>
5 - Ixkitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.846.441	1.883.540	962.900
6 - Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	13.708	686	13.022
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.878.149</b>	<b>1.884.226</b>	<b>975.922</b>
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>34.751.520</b>	<b>31.386.821</b>	<b>3.364.698</b>

**6. ERANSKINA. ORGANIGRAMA**

**Udala**

2006an udalaren organigrama honela egituratu da:



## **Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak arartekoaren kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (11. or.).
  - I.1. Arartekoaren eginkizuna eta langileria (11. or.).
  - I.2. Araubide ekonomiko eta kontabilitatekoa (11. or.).
  - I.3. Aplikatzekoa den araudia (12. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (12. or.).
- III. Iritzia (12. or.).
  - III.1. 2007ko ekitaldiko kontu orokorra dela-eta (12. or.).
  - III.2. Legezketasuna (12. or.).
- IV. Finantzen egoera-orriak (13. or.).
  - IV.1. 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (13. or.).
  - IV.2. Egoeraren balantzea 2007ko abenduaren 31n (14. or.).
  - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko emaitzen kontua (15. or.).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, Comptos Ganberak egin du arartekoaren 2007ko kontuen erregularitasunaren fiskalizazioa. Fiskalizazio hori Comptos Ganberak 2008rako onetsita-jarduera programan sartu zen.

Azterketa-lana 2008ko maiatzean egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osa-

tutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu arartekoaren bulegoko langileek lan hau egitean emaniko laguntza.

#### **I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izanen du eginkizun nagusi.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta egindako zuzemene berri ematen dio urtero erakunde horri. 2007ko martxoaren 22az geroztik Arartekoaren erakundeak titularr berria du.

Askatasunez izendatu eta kargutik kenduko ditu bere eginkizunak betetzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak –2007an gutzira, 5–, eta langile horiek Nafarroako Parlamentuko konfiantzazko langileen araubideari lotzen zaizkio.

Arartekoaren gainerako langileak Nafarroako Parlamentuko plantillari dagozkio, eta honakoak izan dira 2007ko ekitaldian: goi mailako teknikari bat, administrazio-kudeaketako teknikari bat, bi administrari eta gelazain bat.

#### **I.2. ARAUBIDE EKONOMIKO ETA KONTABILITATEKOA**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago; halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago.

Arartekoaren aurrekontu proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta bere kontuak Nafarroako kontu orokorren parte izaten dira.

Honakoak dira Arartekoaren kontuen osagaiak: egoera-balantzea, aurrekontuaren likidazio-egoera, ekonomi eta ondare emaitzako kontua eta oroitazkia.

Arartekoaren dirusarrera guztien jatorria Nafarroako Gobernuaren transferentziak dira, hala arruntak nola kapital transferentziak.

Funtzionamendu gastuak finantzatzeko Nafarroako Gobernutik 2007an jasotako transferentzia arruntek 1.088.954 euro egiten dute. Horietatik 196.677 euro Foru Komunitateko Diruzaintzara itzuli dira.

### I.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Arartekoari 2007an aplikatzekoa zaion araudia ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

- Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak aldatua.
- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamendu Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Kontabilitate plana, Parlamentuko Mahaiak 1994ko abenduaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

## II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazio lanaren helburuak hauexek dira:

- Egiaztatzea erakundearen kontuek zehatz islatzen dituztela 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera, 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzioa eta erakundeak urte horretan izaniko jardueren emaitza; hori dena, betiere, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate printzipioekin bat.
- Egiaztatzea legedia bete dela 2007an zehar funts publikoen kudeaketan.

Fiskalizazioaren norainokoa arartekoaren kontu orokorreko 2007ko ekitaldiko egoera-orriek ezarri dute, arartekoak bere ardurapean eginikoak baitira.

Beharrezkotzat jo diren probak eta prozedurak gauzatu dira fiskalizazio lanaren helburuen gainean behar adina froga lortzeko.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko kanpo kontrolako organo publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, bai eta Nafarroako Comptos Ganberako fiskalizazio-eskuburuan jasotako prozedura eta programak.

## III. IRITZIA

2007ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

### III.1. 2007ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA DELA-ETA

Arartekoaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak modu arrazoizkoan islatzen ditu 2007ko abenduaren 31ko ondare eta finantza egoera, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa eta 2007ko ekitaldi amaierako ekonomi eta ondare egoera, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioekin bat.

### III.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2007ko ekitaldian zehar, Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

**IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK****IV.1. 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

	Hasierako aurrekontua	Aldak.	Behin betiko aurrekontua	Betebehar aitortuak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
1. Langileria gastuak	700.525		700.525	541.085	541.085	0
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	361.346	3.709	365.055	327.381	298.965	28.416
4. Transf. arruntak	27.333		27.333	23.033	23.033	0
6. Inbertsio errealak	70.685	555	71.240	71.240	54.908	16.332
7. Kapital-transf.	69.019	117.308	186.327	186.327	185.033	1.294
8. Aktibo finantzarioak	6.000	-6.000	0	0	0	0
9. Pasibo finantzarioak	12.450	-12.450	0	0	0	0
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>1.247.358</b>	<b>103.122</b>	<b>1.350.480</b>	<b>1.149.066</b>	<b>1.103.024</b>	<b>46.042</b>

Dirusarrerren kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	A Behin betiko aurrekontua	Eskubide aitortuak	Kobrantzak
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	100 0	100	54	540
4. Ohiko transferentziak	1.088.954 0	1.088.954	1.088.954	1.088.954
5. Ondare-dirusarrerak	150 0	150	28	28
7. Kapital transferentziak	155.556 0	155.556	155.556	155.556
8. Aktibo finantzarioak	2.498 1	105.620	0	0
9. Pasibo finantzarioak	100 0	100	0	0
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>1.247.358 1</b>	<b>1.350.480</b>	<b>1.244.592</b>	<b>1.244.592</b>

## IV.2. EGOERAREN BALANTZEA 2007ko ABENDUAREN 31n

## AKTIBOA

Kt.	Kontzeptua	2007	2006
	<b>IBILGETUA</b>	<b>675.840</b>	<b>301.664</b>
	<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>645.124</b>	<b>272.473</b>
202	Eraikinak eta bestelakoak	401.942	57.714
203	Makinak, instalazioak eta tresneria	38.080	37.662
205	Altzariak eta tresneria	89.111	84.565
206	Informazioa prozesatzeko tresneria	69.722	61.979
208	Bestelako ibilgetu materialak	46.269	30.553
	<b>IBILGETU EZ-MATERIALA</b>	<b>30.716</b>	<b>29.191</b>
215	Aplikazio informatikoak	30.716	29.191
	<b>FINANTZA-KONTUAK</b>	<b>251.580</b>	<b>123.463</b>
570	Kutxa	570	238
571	Bankuak eta kreditu-erakundeak	251.010	123.225
	<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>927.420</b>	<b>425.127</b>
	<b>ABALAK ETA BERMEAK</b>	<b>484</b>	
0520	Harturiko abalak	484	

## PASIBOA

Kt.	Kontzeptua	2007	2006
	<b>FUNTS BEREKIAK</b>	<b>677.811</b>	<b>404.785</b>
100	Ondarea	681.302	307.126
101	Jasotako ondare adskribatua	0,01	0,01
108	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
1291	Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	1.971	103.122
	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>249.609</b>	<b>20.342</b>
<b>40</b>	<b>AITORTUTAKO OBLIGAZIOETAKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>46.042</b>	<b>6.949</b>
400	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak Aurtengo ekitaldia	46.042	6.949
<b>47</b>	<b>ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN</b>	<b>203.567</b>	<b>13.393</b>
4759	Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta	196.677	5.017
477	Gizarte Segurantza hartzekodun	6.890	8.376
	<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>927.420</b>	<b>425.127</b>
	<b>ABALAK ETA BERMEAK</b>	<b>484</b>	<b>0</b>
0570	Abal-emaileak	484	0

## IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko EMAITZEN KONTUA

GASTUAK	2007	2006	DIRUSARRERAK	2007	2006
Langile-gastuak	550.662	585.001	Gordailuen interesak	28	34
Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	317.804	338.729	Kapital-transferentziak	155.556	68.202
Ibilgetuaren galerak	8.194				
Transferentzia arruntak	23.033	20.596	Transferentzia arruntak	1.088.954	976.317
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	0	18.301	Aurreko ekitaldietako dirusarrera eta etekinak	124.803	12.694
Kapital-transferentziak	186.327	124.803	Bestelako dirusarrerak	186.381	540
GASTUAK, GUZTIRA	1.086.020	1.087.432	DIRUSARRERAK, GUZTIRA	1.555.723	1.057.787
AURREZKIA	469.702		DESAURREZKIA		29.644

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko ekainaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

#### NAFARROAKO COMPTOS GANBERAK 2006ko EKITALDIARI BURUZ EGINDAKO FISKALIZAZIO-TXOSTENEN GOMENDIOAK NORAINO BETE DIREN

2006ko ekitaldiaren erregulartasunari buruzko fiskalizazioan eginiko honako gomendio hauek bete direla egiaztatu ahal izan da:

##### GASTUEN ALDAKETAK

– Kontu-hartzaileak txostena egiten du gastuen aurrekontu-aldaketak onetsi baino lehen.

– 2008an erantsitako 2007ko ekitaldiko kredituak 2007ko ekitaldiko azken hilabetea baino lehen konprometitutako gastuei dagozkie.

##### OHIKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA ETA INBERTSIOAK

– Oro har, Kontu-hartzailearen jarduerak Parlamentuko Erregelamendu ekonomiko-finantzarioan ezarritakoari jarraikiz gauzatzen dira.

– Parlamentuko Erregelamendu ekonomiko-finantzarioan ezarritako lotura juridikoaren maila errespetatzen da.

– Esleipen-hartzaileari eskatzen zaio bere kaudimena eta gaitasuna egiaztatzea.

– Kontu-hartzaileak ziurtagiria ematen du, kreditua izateari buruz, laguntza teknikorako kontratuen luzapenaren kasuetan.

– Parlamentuko Erregelamendu ekonomiko-finantzarioan ezarritako baldintzak betetzea, lan kontratuen izapidetzeari dagokionez.

– Ondasunen inbentarioan erregistratu dira eraikinaren klimatizazio-lanak, jabeen elkarteak kudeatu dituenak.

### **2007ko EKITALDIARI DAGOKION ERREGU-LARTASUN FISKALIZAZIOAREN IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Hauek dira 2007ko ekitaldiko auditorian azterturiko arlo esanguratsuenei buruzko ondorio eta gomendioak:

#### **GASTUEN ALDAKETAK**

– Arartekoak kreditu-gerakinak eranstea onesten du kasuan kasuko ekitaldiari buruzko likidazioa eta kontuak onetsi aurretik, eta, hain zuzen, horren kontrakoa ezartzen da Parlamentuko erregelamendu ekonomiko-finantzarioan. Jokamolde honek kontabilitate sistemaren eskakizun bati erantzuten dio; izan ere, ez du uzten ekitaldi bateko kontabilitatea ixten alde aurretik ez badira kasuan kasuko kreditu-gerakinak erantsi.

– Ez dira justifikatzen kontusailean nahikoa krediturik ez duten gastuengatik eginiko doikuntzak, ezarritako lotura juridikoaren maila gainditzen ez badute ere.

*Hona gure gomendioak:*

– *Kredituen eransketa onestea kasuan kasuko ekitaldiko likidazioa eta kontuak onestearekin batera.*

– *Kontusailean dagoen dirua gainditzen duten gastuak, kasuan kasuko lotura-arloko kontusailetan aurrekontu-doikuntzak eragiten dituztenak, egiteko beharra justifikatzea, betiere aurreko oinarrian aipatu diren lotura mailak gainditu gabe.*

#### **ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN EROSKETA ETA INBERTSIOAK**

Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erosteagatik gastuen lagin bat aztertu dugu eta ondokoa detektatu dugu:

– Arkitekto profesionalek atea aldatzeko eginiko azterlana, 1.044 eurokoa, gastu arrunt gisa kontabilizatu da eta ez zaio egotzi eginiko inbertsioaren kostuari.

Inbertsioen fiskalizazioan ondokoa egiaztatu da:

– Inbertsio gisa kontabilizatu da online zerbitzu juridikoa berritzeagatik gastua, 2007an 7.635 eurokoa izan dena. Gastu horiek ordaintzen dira legeriaren datu base bat kontsultatzeko eskubideagatik.

*Hona gure gomendioak:*

– *Inbertsioei buruzko seigarren kapitulari egozte aplikagarri zaizkion edota inbertsioekin zerikusia duten azterlan eta txostenengatik gastuak.*

– *Online zerbitzu juridikoa berritzeko gastuak kontabilizatzea ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketari buruzko bigarren kapituluko programa eta lizentzien errentamenduari buruzko kontzeptuan; izan ere, legeria kontsultatzeko lizentziak dira, eta ez inbertsioak.*

#### **DIRUZAINZA**

– Ordainketak transferentzia elektronikoaren bidez egiterakoan, kudeaketa teknikariak prestatu eta sartzen ditu ordaindu beharreko gastuen datuak. Ordainketa egiteko baimen elektronikoa daukate bai arartekoak bai kudeaketa teknikariak.

– Kontaketa-aktan, “formalizazioa” izeneko kontzeptuan, 2006an formalizazio-kontuan eskuz eginiko doikuntza batetik sorturiko 7.329 euroko saldo bat agertzen da. Kontu hori ordainduta dago, baina kontaketa-aktan ageri da oraindik. Hori zuzena bada ere, eskuz eginiko zuzenketa-idazkuna ez da jasotzen.

*Hona gure gomendioak:*

– *Gutxienez bi pertsonak baimena izatea, modu mankomunatuan, transferentzia elektroniko bidezko ordainketak egiteko, eta, ahal den neurrian, bereiztea ordainketen zerrenda prestatzeko eta datuak sartzeko eginkizunak eta ordainketen zerrenda berrikusi eta baimentzeko eginkizunak.*

– *Kontaketa-aktatik kentzea formalizazio-kontuko 7.329 euroko saldoa.*